



2026ko OTSAILAREN 12ko EBAZPENA, TRANSFERENTZIA ETA NAZIOARTEKOTZE ERREKTOREORDETTARENA, EHU – USAC (UNIVERSITY STUDIES ABROAD CONSORTIUM) HITZARMENAREN ESPARRUAN DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUEREN DEIALDIAREN OINARRIAK ONARTZEN DITUENA 2026-2027 IKASTURTERAKO.

EHUk eta Nevadako Unibertsitateak (Reno), University Studies Abroad Consortium (USAC) partzuergoko Amerikako unibertsitateak ordezkatur, lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten 2015ean, jarduera akademikoak eta osagarriak garatzeko.

Unibertsitatearen nazioartekotzea da unibertsitateko irakaskuntzen kalitatea hobetzeko funtsezko erronketako bat. Hitzarmenean arrakastaz garatu dira orain arteko nazioartekotze ekintzak, beraz, haien irismena zehazten duten inguruabarrak aztertu ondoren, berriro argitaratu da hitzarmena gauzatzeko laguntzen deialdia.

Hitzarmenaren arabera, ekintzak University Studies Abroad Consortium partzuergoak finantzatzeko ditu. Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetzaren arduraz izango da deialdia argitaratzea eta kudeatzea eta ekintzen emaitzak gainbegiratzea, aurreikusitakoan.

Azaldutakoa dela bide, kreditua badagoenez eta ditudan eskumenak baliatur, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Onartzea eta argitaratzea EHU – USAC (University Studies Abroad Consortium) hitzarmenaren esparruan 2026-2027 ikasturterako diruz lagundu daitezkeen jardueren deialdiaren oinarriak, USACek esleitutako partidaren gain, horretarako izendatutako kontuan.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, ebazpena campus bakoitzeko unibertsitateko iragarki taulan eta taula birtualean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 116. eta 117. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Halaber, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzietako dagokion epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik jarri, berariaz ebazti arte edo jarritako berraztertze errekurtsoaren presuntziozko ezespina gertatu arte.

OINARRIAK

1. ZENBATEKO OSOA	3
2. PROGRAMAREN HELBURUAK	3
3. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUERAK	3
○ 1. ekintza: "FELIX MENCHACATORRE" BIDAIA POLTSAK	4
✓ 1.1 ekintza: (Orokorra)	4
✓ BERRIA!! 1.2 ekintza: (Artea, diaspora eta kultura-trukea)	5
○ 2. ekintza: GRADUATE ASSISTANTSHIP (GA) UNIVERSITY OF NEVADA LAS VEGAS-EN (UNLV), 1-2 URTE, MASTER KLASEAK BARNE	6
○ 3. ekintza: GAZTELANIAZKO IRAKURLEA MOUNT UNION COLLEGE-N	7
○ 4. ekintza: BI BEKA SEIHILEKO BATEAN USAC-EKO PROGRAMETAN IKASKETAK EGITEKO	8
○ 5. ekintza: LAU BEKA UDAN USAC PROGRAMETAN IKASKETAK EGITEKO	9
4. ESKARIAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA	10
5. ESKARIA	11
6. HAUTATZEKO IRIZPIDEAK	12
7. EBAZPENA	12
8. ONURADUNEN BETEBEHARRAK	13
9. EZARRI DAITEKEEN ARAUBIDE JURIDIKOA	13

1. ZENBATEKO OSOA

EHUren eta USACen artean deialdi honetarako adostutako zenbatekoa nahikoa izango da emandako laguntzen osotasuna betetzeko, eta 2. oinarrian garatu bezala banatuko da ekintzen arabera.

Zenbatekoa ezingo da aldatu.

Adjudikazioaren unean ekintza bakoitzeko eskuragarri dagoen beka kopurua ematen ez bada, soberakina ekintza mota berdinerara bideratuko da datorren ekitaldian.

2. PROGRAMAREN HELBURUAK

Programa honen helburu nagusia Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen nazioartekotze plan estrategikoaren ikuspegiarekin lerrokatzen da. Bertan, goi mailako hezkuntzaren nazioartekotzea nabarmentzen da, modu irmoan bultzatu behar den funtsezko elementu gisa, unibertsitatea prest egon dadin ingurune eleaniztun eta kulturantzun batean lan egiteko gai diren pertsonak prestatzeko. Horrez gain, prestakuntzaren kalitateagatik EHU nazioartean aitortua izatea bilatzen da.

EHU mundura irekita dagoenez eta Europako eta munduko unibertsitate onenen pare egon nahi duenez, irakasleei eta ikasleei beste herrialde batzuetako unibertsitateetan proiektatzeko aukerak eskaintzea mekanismo baliotsua da helburu hori lortzeko. EHUK garrantzi handia ematen dio prestakuntzaren nazioartekotzeari eta mundu osoko unibertsitate eta erakundeekiko lankidetzara sustatzen du. Hori dela eta, programa honetan finantzatzutako trukeek lehen aipaturako plan estrategikoak funtsean jasotzen duen helbururako balio dute.

3. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUERAK

	EKINTZA	TALDEA	Ko p.
1.1 ekintza	"Felix Menchacatorre" bidaiak poltsak (<u>Orokorra</u>).	EHUko irakasleak	9
1.2 ekintza <u>BERRIA!!</u>	"Felix Menchacatorre" bidaiak poltsak (<u>Artea, diaspora eta kultura elkartrukea</u>).	EHUko irakasleak	1
2. ekintza	Graduate Assistantship (GA) University Of Nevada Las Vegas-en (UNLV), 1-2 urte, master klaseak barne	EHUko ikasleak: gradua (azkeneko maila), masterra edo doktoregoa	2

3. ekintza	Gaztelaniazko irakurlea Mount Union College-n	EHUko ikasleak: gradua (azkeneko maila), masterra edo doktoregoa	1
4. ekintza	Seihileko batean ikasketak egitea USACeko programetan	EHUko ikasleak: gradua, masterra edo doktoregoa	2
5. ekintza	Udan USACeko programetan ikasketak egitea	EHUko ikasleak: gradua, masterra edo doktoregoa	4

1. ekintza: "FELIX MENCHACATORRE" BIDAIA POLTSAK

1.1 ekintza: (Orokorra)

EHUko irakasleen egonaldiak ikerketako jarduerak garatzeko (2025ean egitekoak) atzerriko unibertsitateetan; irakasleak eskariarekin batera xedeko harreman akademikoak eman beharko ditu eta ostatatzea bere kontu kudeatu beharko du.

Taldea: EHUko irakasleak

Finantzaketa: 1.600 dolar amerikarreko laguntza ezarri da emandako beka bakoitzeko, hau da, aurkeztutako proiektuko eta ez irakasleko. Laguntza hori 800 dolarreko bi ordainketatan emango da: lehenengoa bidaiaren faktura aurkeztu ondoren emango da, eta bigarrena egonalditik itzulitakoan, gauzatutako ikerketari buruzko txostena aurkeztu ondoren. Ikerketarako egonaldia hilabetekoa izango da gutxienez.

Bekari uko eginez gero, deialdi honetan ekintza honetarako beka lortu duten gainerako proiektuen artean banatuko da zuzkidura ekonomikoa bidezko moduan, hautaketa irizpideen eta egonaldiaren iraupenaren arabera.

Asegurua: ez da sartzen. Bidaiako laguntza aseguru bat kontratatu beharko dute guztiek, ekintza bakoitzaren baldintzetan.

Bisatua tramitatzeko gastuak: ez dira sartzen.

Laguntza kop.: Bederatzi (9) beka

Aurkeztu behar den dokumentazioa:

1. Curriculum Vitae laburtua ingelesez.
2. Ikerketa proiektu laburra ingelesez (*"ACCION1_Template-Staff-mobility-agreement"* aurkeztutako ereduaren arabera), atzerriko unibertsitateak sinatuta.
3. Ingeleseko mailaren egiaztatzea: B2
4. Bidaiako datak (joatekoa eta itzultzekoa)

5. Saileko zuzendariaren baimena
6. Gonbidapen gutuna, atzerriko unibertsitateak sinatuta.

Hautatzeko irizpideak (garrantziaren arabera):

1. Ikerketa proiektuaren justifikazioa eta xede unibertsitatearen profilerara egokitzea.
2. Aurkeztutako eskarien ezagutza arloen arteko oreka.
3. Lehentasuna izango dute aurrez poltsa hauek jaso ez dituzten hautagaiek.

BERRIA!! 1.2 ekintza: (Artea, diaspora eta kultura-trukea)

"FELIX MENCHATORRE" BIDAIA-POLTSAREN beka bat (1), artea, diaspora eta kultura-elkartrukearen esparruan eman beharko da, eremu orokorreko bidaia poltsak emango diren eta 1.1 ekintzarako aurretik azaldutako baldintza berberetan:

Laguntza kop.: Beka bat (1) esleituko da, kategoria orokorreko bidaia poltsen baldintza berberetan. Horrez gain, 1.2 ekintzarako ondorengo berariazko baldintzak ere kontuan hartu beharko dira:

Bekaren espirtua: Bekak kulturarteko dimentsioa duen proiektu artistiko bat finantzatu luke, gutxienez ardatz hauetako bat aztertuko lukeena:

1. Euskal diaspora Estatu Batuetan
2. Euskadiren eta AEBen arteko kultur topaketa
3. Hizkuntza, identitatea, memoria, migrazioa

"Proiektu artistikoaren" dimentsioa

1. Ikusizko arteak (argazkigintza, ilustrazioa, bideoa, instalazioa)
2. Literatura- edo narrazio-sorkuntza hibridoa
3. Performancea, musika edo arte eszenikoak
4. Proiektu digitala (webgunea, artxibo interaktiboa, podcast artistikoa)

Kultura-trukearen dimentsioa

1. Bi aldeetako parte-hartzaileen arteko lankidetzak (USAC – EHU)
2. Landa-lana (elkarrizketak, artxiboak, AEBetako edo Euskadiko euskal komunitateak)
3. Tailer irekia, hitzaldia edo proiektuaren aurkezpen publikoa
4. Dibulgazio-materiala, bi edo hiru hizkuntzatan

Hautatzeko irizpideak

1. Proiektu artistikoaren kalitatea eta koherentzia
2. Kulturarteko ikuspegiaren argitasuna
3. Lotura euskal diasporarekin eta/edo AEB – Euskadi elkartrukearekin
4. Egonaldiaren bideragarritasuna
5. Eragin akademikoa, kulturala edo komunitarioa

Azken emaitza posiblea (oso garrantzitsua)

1. EHUn jendaurrean aurkeztea
2. USAC kanalen bidezko hedapena
3. "Félix Menchacatorre proiektua – [Urtea]" artxibo digitala

2. ekintza: GRADUATE ASSISTANTSHIP (GA) UNIVERSITY OF NEVADA LAS VEGAS-EN (UNLV), 1-2 URTE, MASTER KLASEAK BARNE.

2. ekintza: lehen seihilekoan (2026ko udazkena) GAK hiru klase hartuko ditu Masters in Hispanic Studies programan eta bigarren seihilekoan (2027ko udaberria) GAK gaztelaniazko bi klase emango ditu (eta master klaseak hartzen jarrai dezake).

Finantzaketa: \$20,250.00

Asegurua: ez da sartzen. Bidaiako laguntza aseguru bat kontratatu beharko dute onuradun guztiek, ekintza bakoitzaren baldintzetan.

Taldea: EHUko ikasleak: gradua (azkeneko maila), masterra edo doktoregoa. Xehetasun gehiagorako, ikusi **Hautatzeko irizpideak** puntua.

Iraupena: ikasturtea (2026-27ko abuztua-maiatza) beka berritzeko aukerarekin hurrengo urtean masterra amaitu ahal izateko.

Bidaia: ez da sartzen.

Bisatua tramitatzeko eta UNLVko Graduate School-en onartzeko gastuak: ez dira sartzen.

Plaza kop. 2

Aurkeztu behar den dokumentazioa: ikusi aurrerago 4. puntua (*Eskariak aurkezteko tokia eta epea*) eta 5. puntua (*Eskaria*).

1. Izena emateko orria
2. Curriculum Vitaea ingelesez
3. Ziurtagiri akademikoa
4. Bi (2) gomendio-gutun
5. Ingeleseko mailaren egiaztagiria: C1
6. Motibazio gutuna (asmoak, helburuak; 250 hitz)
7. Bete inprimakia online

Hautatzeko irizpideak:

- Lehentasuna emango zaie UNLVra itzuli nahi duten hautagaiei, masterreko ikasketen bigarren urtea betetzeko.

- Filologia titulazioak, ingeles ikasketak edo antzekoak. Lehenetsuna izango dute unibertsitate hartzailearen beharrek eta baldintzek.
- Irizpide horiei jarraituz, adjudikazio epaimahaiak ezarri ahal izango du ekintzarako zein eskari diren baliozkoak eta zein ez.

3. ekintza: GAZTELANIAZKO IRAKURLEA MOUNT UNION COLLEGE-N

3. ekintza: gaztelaniazko eskolak ematen laguntzea.

Taldea: EHUko ikasleak: gradua (azkeneko maila), masterra edo doktoregoa Xehetasun gehiagorako, ikusi **Hautatzeko irizpideak** puntua.

Finantzaketa: egonaldia, 450 dolar hilean eta seihileko bakoitzean gehienez hamabi krediturainoko matrikula doan.

Asegurua: barne.

Iraupena: ikasturtea (abuztua-maiatza).

Bidaia: Ez da sartzen.

Ostatua: egoitza bateko banakako logela barne.

Mantenua: mantenu osoa unibertsitateko kafetegian (21 otordu astean).

Bisatua tramitatzeko gastuak: ez dira sartzen.

Plaza kop.: 1

Aurkeztu behar den dokumentazioa: ikusi aurrerago 4. puntua (*Eskariak aurkezteko tokia eta epea*) eta 5. puntua (*Eskaria*).

1. Izena emateko orria
2. Curriculum Vitaea ingelesez
3. Espediente akademikoa
4. Gomendio gutunak (2)
5. Ingeles mailaren egiaztagiria
6. Motibazio gutuna (asmoak, helburuak; 250 hitz).
7. Bete inprimakia online

Hautatzeko irizpideak:

- Hezkuntza, Filologia, Ingeles Ikasketak edo antzeko titulazioak.
- Egiaztatutako ingeles maila aurreratua.
- 18-23 urte bitarteko ikasle atzerritarrei gaztelania irakasteko interesa eta profil ekintzaileak baloratuko dira.

- Lehentasuna izango dute aurrez inolako laguntzarik jaso ez duten hautagaiek.
- Irizpide horiei jarraituz, adjudikazio epaimahaiak ezarri ahal izango du ekintzarako zein eskari diren baliozkoak eta zein ez. Aurrez hautatutako eskatzaileei elkarrizketa pertsonala egingo zaie, eta The University of Mount Union arduratuko da hautagaia aukeratzeaz.

4. ekintza: BI BEKA SEIHILEKO BATEAN USAC-EKO PROGRAMETAN IKASKETAK EGITEKO

4. ekintza: bi beka, 3.750 dolar amerikarrekoak bakoitza; horietatik 750 ikasleari ordainduko zaizkio bidaiarako laguntza gisa. Gainerako 3.000 gastuetarako izango dira: matrikulako gastuak, programatutako ibilaldiak eta programa bakoitzaren berezko gainerako jarduerak. Bekan ez dira sartzen ostatatzea, medikuaren aseguruua, hautazko ibilaldiak, testu liburuak, kargu gehigarria duten ikastaroak eta gastu pertsonalak. Bidaiako laguntza aseguru bat kontratatu beharko da, ekintza bakoitzaren baldintzetan.

Informazio gehiago kontsultatu daiteke munduan zeharreko USAC programei buruz eta horietako bakoitzean eskainitako ikastaroei buruz: <http://usac.edu>

Taldea: EHUko ikasleak: gradua, masterra edo doktoregoa

Iraupena: udazkeneko seihilekoa (2026eko iraila-abendua) edo udaberrikoa (2027ko urtarrila-maiatza)

1. **Chile (Santiago):** Spanish Language & Latin American Society; International Studies, Law & Journalism
2. **Costa Rica (Heredia):** Spanish Language, Latin American Studies & Culture; Health, Sport & Tropical Science
3. **Czech Republic (Prague):** Czech Language, Culture & Arts; European Studies
4. **France (Pau):** French Language; European Studies & Sustainability (1st summer session only)
5. **Germany (Lüneburg):** German Language, Culture & Society
6. **India (Bengaluru):** Indian Culture & Business Studies
7. **Italy (Reggio Emilia):** Italian Language & Culture; Health, Education & Human Development
8. **Italy (Turin):** Italian Language, Culture & Society; International Studies & Business
9. **Italy (Viterbo):** Italian Language, Culture & Society; Art, Architecture & Art History
10. **Thailand (Chiang Mai):** Thai Language, Culture & Society; Health, Wellness & Global Studies
11. **Uruguay (Montevideo):** Spanish Language & Culture

* Ikastaroak ingelesez izaten dira, hizkuntzei buruzkoak izan ezik.

Aurkeztu behar den dokumentazioa: ikusi aurrerago 4. puntua (*Eskariak aurkezteko tokia eta epea*) eta 5. puntua (*Eskaria*).

1. Izena emateko orria

2. Curriculum Vitae ingelesez
3. EHUri lotuta egotearen proba
4. Hizkuntza ezagutzearen ziurtagiria
5. Motibazio gutuna (asmoak, helburuak; 250 hitz)
6. Bete inprimakia online

Hautatzeko irizpideak: atzerriko hizkuntzekiko interesa eta horiek menderatzea. Hautatutako programaren araberrako prestakuntza. USAC programaren helburuetara egokitutako profila. Lehentasuna izango dute aurrez inolako laguntzarik jaso ez duten hautagaiek.

5. ekintza: LAU BEKA UDAN USAC PROGRAMETAN IKASKETAK EGITEKO

5. ekintza: lau beka, 2.250 dolar amerikarrekoak bakoitza; horietatik 750 bekaren hartzaileari ordainduko zaizkio bidaiarako laguntza gisa. Gainerako 1.500 gastuetarako izango dira: matrikulako gastuak, programatutako ibilaldiak eta programa bakoitzaren berezko gainerako jarduerak.

Bekan **ez** dira sartzen ostatatzea, medikuaren aseguru, hautazko ibilaldiak, testu liburuak, kargu gehigarria duten ikastaroak eta gastu pertsonalak. Bidaiako laguntza aseguru bat kontratatu beharko da, ekintza bakoitzaren baldintzetan.

Programa bakoitzean eskainitako ikastaroei buruzko informazio gehiago honako esteka honetan kontsulta daiteke: <http://usac.edu>.

Taldea: EHUrekin lotura duten unibertsitateko kide guztiak.

1. **Chile (Santiago):** Spanish Language & Latin American Society; International Studies, Law & Journalism
2. **Costa Rica (Heredia):** Spanish Language, Latin American Studies & Culture; Health, Sport & Tropical Science
3. **Czech Republic (Prague):** Czech Language, Culture & Arts; European Studies
4. **France (Pau):** French Language; European Studies & Sustainability (1st summer session only)
5. **Germany (Lüneburg):** German Language, Culture & Society
6. **India (Bengaluru):** Indian Culture & Business Studies
7. **Italy (Reggio Emilia):** Italian Language & Culture; Health, Education & Human Development
8. **Italy (Turin):** Italian Language, Culture & Society; International Studies & Business
9. **Italy (Viterbo):** Italian Language, Culture & Society; Art, Architecture & Art History
10. **Thailand (Chiang Mai):** Thai Language, Culture & Society; Health, Wellness & Global Studies
11. **Uruguay (Montevideo):** Spanish Language & Culture

Aurkeztu behar den dokumentazioa: ikusi aurrerago 4. puntua (*Eskariak aurkezteko tokia eta epea*) eta 5. puntua (*Eskaria*).

1. Izena emateko orria
2. Curriculum Vitae ingelesez
3. EHUri lotuta egotearen proba (matrikula)
4. Hizkuntza ezagutzearen ziurtagiria; B2
5. Motibazio gutuna (asmoak, helburuak; 250 hitz)
6. Bete inprimakia online

Hautatzeko irizpideak: hautatutako programaren arabeko prestakuntza. Atzerriko hizkuntzekiko interesa eta horiek menderatzea. USAC programaren helburuetara egokitutako profila. Lehentasuna izango dute aurrez inolako laguntzarik jaso ez duten hautagaiek.

4. ESKARIAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

1., 2., 3., 4. eta 5. ekintzak:

Ekintza bakoitzerako eskatutako dokumentazioa bakoitzaren deskribapenean dago zehaztuta.

- **Eskariak aurkezteko epea:** 2026ko otsailaren 27ra arte
- **Ebazteko data:** 2026ko martxoaren 13ra arte
- **Uko egiteko epea:** 2026ko martxoaren 18ra arte

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. e) artikuluan ezarritakoaren arabera eta EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakiaren arabera, zeinaren bidez interesdunak eta EHUko langileak harreman elektronikoetan identifikatzeko eta sinadura elektronikoa erabiltzeko jarraibidea onartu zen,

- **Eskaria EHUko erregistro elektronikoan aurkeztu beharko da,** <https://egoitza.ehu.eus/opencms/system/modules/sede/index> URL helbidean, eta eskariaren "Hartzailea" atalean hau aukeratu beharko da: **Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetza → Nazioarteko Harremanetarako Bulegoa (U02000247)**. Horretarako hauek erabiliko dira: EHUko langilearen ziurtagiri elektronikoa, Izenpeko erabiltzailearen ziurtagiri digitala, NAN elektronikoa edo Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES).
- Era berean, eskaria sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoan aurkeztu ahal izango da, eta salbuespenetan, EHUko erregistroen arloko laguntza bulegoetan. EHUko erregistro arloko bulegoetan aurkeztutako eskariak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira, espediente administratibo elektronikoan sartzeko, eta originalak interesdunari itzuliko zaizkio, hark bere burua funtzionarioaren aurrean identifikatu eta egintza horretarako berariazko baimena eman ondoren, EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakia aintzat harturik. Erabaki horrek onartu egiten ditu gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaitetan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea EHU; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.



Eskaria aurrez aurre aurkeztuz gero, helbide honetara igorriko da:

USAC DEIALDIA

Gipuzkoako Campuseko Nazioarteko Harremanetarako Bulegoa
Ignacio María Barriola Zentroa
Elhuyar plaza 1
20018 Donostia

Bizkaiko Campuseko Nazioarteko Harremanetarako Bulegoa
Biblioteka eraikina, 2. solairua. Sarriena auzoa z.g.
48940 Leioa (Bizkaia)

Arabako Campuseko Nazioarteko Harremanetarako Bulegoa
Arabako Campuseko Errektoreordetza
Comandante Izarduy 2
01006 Vitoria-Gasteiz (Araba)

5. ESKARIA

2., 3., 4., 5. ekintzetarako eskari bakarra aurkeztu beharko da, baita hainbat ekintzetarako eskari aurkezten badira ere. Azken kasu horretan, lehenasunezko ordena adierazi beharko da horretarako laukitxoan eskariaren inprimakian (online nahiz paperean), eta horietako bakoitzerako beharrezkoa den dokumentazioa bidali beharko da. Ekintza bakoitzerako eskatutako dokumentazioa bakoitzaren deskribapenean dago zehaztuta.

Hautagaiari ekintza baterako laguntza emanez gero, bestetik kanpo geratuko da. Lehenasunez aukeratutako ekintzarako emandako laguntzari uko eginez gero ondoren, ez du eskubiderik emango lehenasunik gabeko ekintzarako laguntza lortzeko, non eta laguntzak hutsik geratzen ez diren; halakoetan, egoera berean dauden besteekin batera baloratuko da. Dena dela, ekintza bakoitzerako finkatutako epea igaro ondoren uko eginez gero, ez da horretarako aukerarik izango.

Eskatzaileak hobeto jakin dezan ingeleseko tituluek Europako erreferentzia esparruarekin duten baliokidetasuna, EHUK erabiltzen duen ingeleseko maila/azterketa ofizialen baliokidetasunaren erreferentzia markoa kontsulta daiteke: <https://www.ehu.eus/es/web/nazioarteko-harremanak/eleantitasun-plana-c1-mailako-ziurtagiria>.

Ekintza jakinerako ezarritako baldintzak betetzen ez baditu eskariak edo eskatutako dokumentazioa falta bazaio, Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetzak eskatuko dio eskatzaileari 10 egun baliouduneko epean falta dena aurkezteko edo agiriak atxikitzeko, eta jakinaraziko zaio hala egiten ez badu eskarian atzera egin duela ulertuko dela, 30/92 Legearen



71.1 eta 42.1 artikuluen arabera. Ekintza bakoitzak eskatutako ingeleseko mailaren ezagutzaren ziurtagiria epe horretan aurkezten ez duten hautagaiak zuzenean kanpoan geratuko dira.

Eskaria zuzentzeko jakinarazpena Errektoreordetzaren webgunean argitaratuko da: <https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/usac>.

6. HAUTATZEKO IRIZPIDEAK

Eskariko akatsak zuzentzeko 10 eguneko epea igarotakoan, horretarako izendatutako batzordea bilduko da, onartutakoak baloratzeko. Batzorde horretan honako hauek egongo dira: Nazioarteko Harremanetako bulegoko zuzendaria, batzordeburua izango dena; eta hiru kide, errektoreordetzako teknikari bat, idazkari lanak egingo dituen, eta USACeko bi ordezkari, xede horretarako Partzuergoak izendatutakoak.

Hautatzeko irizpideak ekintza bakoitzean deskribatuta daude. Berdinketa egonez gero, epaimahaiak informazio gehiago edo argibideak eska ditzake edo elkarrizketa pertsonal bat egin dezake, erabaki bat hartu eta berdinketa desegiteko.

7. EBAZPENA

Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordeak adjudikatuko ditu laguntzak, batzordeak egindako balorazioa gogoan izanda.

Adjudikazioaren ebazpena iragarkien taula birtualean eta campus bakoitzarenean eta nazioarteko harremanen webgunean argitaratuko da. Gainera, interesatuei banaka jakinaraziko zaie eskarian adierazitako posta elektronikoko helbidearen bidez, eskariak aurkeztu eta zuzentzeko epeak amaitu eta ondorengo hiru hilabeteen barruan. Epe horretan ez bada berariazko inolako ebazpenik eman eta jakinarazten, eskariak ezetsi egin direla ulertu ahal izango da.

Ebazpen honen aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 116. eta 117. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Halaber, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzietako dagokion epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.



8. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Mugikortasunean parte hartzen duten irakasleek beren kabuz kudeatu beharko dute horrelakoetan oro har eskatzen den joan-etorrietarako lizentzia, eta lekualdatzearen berri eman Gizarte Segurantzari.

Laguntza emateko kontuan izandako inguruabarren batean aldaketaren bat gertatuz gero, nahitaez jakinarazi beharko zaio Errektoreordetzari ahalik eta lasterren.

Ekintza bakoitzerako ezarritako arauen arabera ordainduko dira laguntzak; gastuaren egiaztatzea aurkeztu beharra daukaten onuradunek ekintza amaitzen denetik 15 egun igaro aurretik aurkeztu beharko dute, dagokionean, ekintza bakoitzaren betebeharretan ageri den ekintzari buruzko informazioarekin batera.

Laguntzaren adjudikaziodunak ezingo balu egin aipatutako mugikortasuna, Errektoreordetzan idatzi bat aurkeztu beharko du ondorio horretarako eta uko egin izanaren zergatiak adierazi beharko ditu. Hori horrela, esleitutako kopurua modu parekidean banatuko da 1. ekintzako adjudikaziodunen artean, eta ondorengoari gainerako ekintzetan, balorazio batzordearen aktan ezarritako lehentasun ordenan.

9. EZARRI DAITEKEEN ARAUBIDE JURIDIKOA

Deialdi honen oinarrietan aurreikusi gabekorako, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorraren, haren Erregelamenduaren (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretu bidez onartua) eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera jokatu da.

Gobernu taldearen funtzionamenduari buruzko EHUko errektorearen 2025eko urtarrilaren 30eko Ebazpenaren bidez.

Leioan, 2026ko otsailaren 12an.

Gotzone Barandika Argoitia And.

Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordea
Vicerrectora de Transferencia e Internacionalización